



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2023ko hirugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- eszeptizismoa finkatu egin da EAEko familien artean
- Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna da nagusi
- Europako herrialde nagusien artean hedatu da




1 eszeptizismoa finkatu egin da EAEko familien artean

EAEko familien konfiantzak okerrera egin du (-6) eta, hirugarren hiruhileko honetan, urte osoko balio negatiboena erregistratu da (-13). Hala, eszeptizismoa da nagusi balizko hobekuntza-joeraren aurrean, eta, beraz, familiak nolabait ezkortasunean finkatu direla esan daiteke.

Zehazki, 2023ko lehen bi hiruhilekoetan, EAEko familiek nabarmen gutxitu zuten ezkortasuna aurreko seihilekoan izandako datuekin alderatuta, baina hirugarren hiruhilekoan okerrera egin du berriro. Konfiantzaren galera horretan hainbat faktore biltzen dira, hala nola “gorantz” dirauten prezioak, interes-tasen eta finantzaketa-kostuaren igoera eta aurreikuspen ekonomikoen okertzea. Agertoki horrek, azken batean, EAEko familien ezkortasun handiagoa azaltzen du.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna da nagusi

Estatuko eta EB-27ko familien artean konfiantza hobetu egin da (+6 eta +1 puntu) eta indize hori, hurrenez hurren, honako hau izan da: -13 eta -17. Hala, hiru eremuetan (EAE, Estatua eta EB-27) lortutako emaitzei erreparatuta, balioak antzekoak direla ikusten da eta nolabaiteko ezkortasun-egoera erakusten dute.

Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da hobekuntza-profila (2022ko bigarren zatian izandako okertzearekin alderatuta) bizkorragoa izan zela EAEko familien artean, beste bi eremuetako joera mantsoagoaren aldean. Baina ezkortasun-joera partekatua da eta urtearen amaiera inflazioaren kontrolaren (batez ere) eta ibilbide ekonomikoaren araberakoa izango da.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatua eta EB-27




1. III. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Estatuarentzako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.

3 | Europako herrialde nagusien artean hedatu da

Europako herrialdeetako datuek nolabaiteko eszeptizismoa finkatu dela baieztatu dute, ia ez baita aldaketarik izan familien konfiantzaren balorazioan. Hala, 2023ko hirugarren hiruhilekoan, Frantziako (+2 puntu), Alemaniako (-1 puntu), Danimarkako (+2 puntu) eta Herbehereetako (+1 puntu) familien konfiantza-indizeak aurreko hiruhilekoko antzeko balioetan mantendu dira.

Ondorioz, EAEko familien konfiantzak okerrera egin izanak (-13), honako herrialdeen antzeko balioetan kokatu du: Frantzia (-15), Alemania (-14) edo Herbehereak (-18). Aldiz, Danimarkak hobetzen jarraitzen du (-5). Gauzak horrela, herrialde bakoitzaren mesfidantzan, komuna den zeharkako faktore batek (inflazioa) duen inpaktua ikus daiteke. Faktore horrek justifikatu du beste behin erreferentziazko tasen² igoera, 2001etik maila altuenean kokatuz (% 4,50).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak



1. III. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Europako gainontzeko herrialdeetarako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.
2. Irailaren 14an, oinarritzko 25 puntuko beste igoera bat egin zuten eta ez da bazterzen berrikuspen gehiago egitea.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- handitu egin da EAEko familiek ekonomia orokorrarekiko duten ezkortasuna
- langabeziarekin lotutako igurikimenek ere zertxobait egin dute okerrera
- eta, batez ere, etxeko ekonomiaren gaineko igurikimenak okertu dira
- aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak zertxobait hoztu dira
- EAEko familien konfiantza gutxitu egin da elementu guztien ondorioz


4 | handitu egin da EAEko familiek ekonomia orokorrarekiko duten ezkortasuna

Hurrengo hamabi hilabeteotarako ekonomia orokorraren inguruko bilakaerarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimeneak okerrera egin dute berriro (-25; -9 puntu) eta aldendu egin dira urteko lehen eta bigarren hiruhilekoetan izandako balioetatik (-19 eta -16, hurrenez hurren).

EAEko familien iritzian polarizazio handiagoa gertatu izanaren ondorioa da: egoera ekonomikoak berdin jarraituko duela uste duten familien taldea egonkortu egin da (% 35,6; +1,6 puntu), okerrera egingo duela uste dutenen gorakadaren aurrean (% 50,3; +4,7 puntu) eta hobekuntza gertatuko dela dioen taldeak izandako beherakadaren aurrean (% 14,1; -6,3 puntu), talde hori gutxiengoa izanik.

Eskuragarri dauden datuen arabera, EAEko ekonomiak % 2 inguru egingo du gora 2023an (+% 2,3 eta +% 1,5 urte arteko tasan, lehen eta bigarren hiruhilekoetan, Eustat). Espainiako ekonomiaren datua, berriz, hobea litzateke (+% 4,2 eta +% 2,2, hurrenez hurren, EIN). Dena den, ez dirudi familien ezkortasuna (edo epe ertainerako eszeptizismoa) gainditzeko behar adinakoak izango liratekeenik.


Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimeneak. EAE



5 | langabeziarekin lotutako igurikimeneke ere zertxobait egin dute okerrera

EAEko familien artean, langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimeneke okerrera egin dute (-6 puntu), eta balio negatiboetara itzuli dira (-6), nolabaiteko ezkortasuna erakutsiz. Zehazki, hurrengo hamabi hilabeteotan langabeziak gora egingo duela uste duten familien taldea handitu egin da (% 33,3; +6,0 puntu) eta, aldiz, gutxitu langabeziak behera egingo duela uste dutenen multzoa (% 25,5; -5,3 puntu). Bestalde, egonkor jarraituko duela uste dutenen taldearen proportzioak ez du aldaketa handirik izan (% 41,2; -0,7 puntu). Hala, langabeziak okerrera egingo duen ustea da nagusi.

Hirugarren hiruhilekoko emaitzen (behin-behinekoa, uztaileko eta abuztuko batezbestekoa) ondorioa izango litzateke okertze hori. Izan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioak zertxobait behera egin du (992.616, -% 0,8) eta langabezia igo egin da (107.417, +% 0,5) hiruhileko arteko tasetan. Dena den, aipatzekoa da bi datu horiek urte arteko tasan joera positiboa erakutsi zutela (+% 1,7 eta -% 4,3, hurrenez hurren) eta, beraz, ez litzateke arrazoituta egongo igurikimeneke jaitsiera hori.




6 | eta, batez ere, etxeko ekonomiaren gaineko igurikimenak okertu dira

Etxeko ekonomiaren inguruan EAEko familiek dituzten igurikimenek okerrera (-5) egin dute, aurreko bi hiruhilekoetan ikusitako profil negatiboa sakonduz (-16): hamazazpi hiruhileko jarraian balio negatibotan dirau eta pandemiaren uneko (2020) datu okerrenetara gerturatzen ari da.

Familiako egoera ekonomikoaren igurikimenetan izandako emaitza hori eragin dute, alde batetik, egoera hobetu egingo dela uste duten familien taldeak izanda jaitsierak (% 7,8; -1,4 puntu), eta bestetik, okerrera egingo duela uste dutenen multzoak izandako gorakadak (% 31,2; +2,6 puntu).

Etxeko ekonomiaren igurikimenek okerrera egin izanak lotura izan zezakeen inflazio-ibilbidearekin; izan ere, gastuaren maniobra-marjina eta aurrezteko gaitasuna gutxitu ditu horrek. Hala, oro har egoera menderatzea lortzen ari den arren (KPI orokorraren urte arteko aldakuntza-tasa +% 2,7koa izan da EAEn), oraindik ere elikagaien taldean intzidentzia handia du (+% 9,9), adibidez, eta horrek familia guztiengan zeharkako eragina du.




7 | aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak zertxobait hoztu dira

EAEko familien artean, zertxobait egin dute okerrera aurreztearekin lotutako igurikimenek (-5), baina hori da oraindik ere balio onena duen konfiantza-adierazle partziala (-4). Hurrengo hamabi hilabeteotan aurreztu egingo dutela erantzun duten familien taldea gutxitu izanak (% 48,4; -4,5 puntu) eta ez dutela aurreztuko uste dutenek izandako gorakadak (% 51,6; +4,5 puntu) eragin dute emaitza hori.

Aurrezteko igurikimenetan ikusitako nolabaiteko hozte hori bat dator familiaren ekonomiarekin lotutako igurikimenek okerrera egin izanarekin (bizitzako kostu handiagoak gastuan izandako inpaktuaren eta, beraz, aurrezteko tarte txikiagoaren ondorioz).

Hala eta guztiz ere, aurreztearekin lotutako igurikimenak egindako aurrezkoa baino zuhurragoak izan ohi dira; familien erdiak uste du ez duela aurreztuko, aldiz, aurreko hamabi hilabeteetan ez dutela aurreztu dioten familien ehunekoa heren batekoa baino ez da (% 35,6, % 36,1 eta % 33,8 2023ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren).



8 EAEko familien konfiantza gutxitu egin da elementu guztien ondorioz

Familien konfiantza neurtzeko erabiltzen diren lau elementuek okerrera egin dute (neurri batean edo bestean) eta, guztien ondorioz, indizeak behera egin eta balio negatibotan finkatu da (-13). Ekonomia orokorraren (-25, -9 puntu) eta etxeko igurikimenekin lotutakoak (-16, -5 puntu) nabarmendu behar dira emaitza eta joera negatiboa dutelako. Bestalde, neutraltasunetik gertuen dauden indizeak langabeziarekin (-6, -6 puntu) eta aurrezkiarekin (-4, -5 puntu) lotutakoak dira.

EAEko familien 2023ko konfiantza-indizearen behin-behineko emaitza (hiru hiruhilekoen batezbestekoa) negatiboa da (-10), eta nabarmen okerragoa 2019koarekin eta 2021ekoarekin alderatuta (-2 eta -6), baina 2022koaren antzekoa (-11) -hain zuzen, prezio altuen egoera hori urte horretan ere gertatu zen-. Oro har, 2023a ekitaldi positiboa izango da enpleguari eta datu makroekonomikoei dagokienez, baina seguru asko, urtearen amaieran, EAEko familien konfiantza-indizea negatiboa izango da, laugarren hiruhilekorako ez baita aurrekusi orain arte metatutako galera horri buelta eman ahal izango liokeen hobekuntza esanguratsurik.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	IVH-22	IH-23	IIH-23	IIIH-23	Aldea
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-23	-9	-7	-13	-6
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-39	-19	-16	-25	-9
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-21	-10	-11	-16	-5
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-14	-6	0	-6	-6
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-17	-2	1	-4	-5

↔ (±2 puntuko aldea)



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioak apur bat igo egingo direla aurreikusten dute EAEko familiek
- erosteko unearen balorazio negatiboak bere horretan jarraitzen du
- eta erosketa handiak egiteko igurikimenak suspertu, eta ia positiboak dira
- etxebizitza erosteko asmoa hoztu egin da; aldiz, autoa erostekoa, mantendu
- kontsumo handiarekin lotutako igurikimenak, hobetzetik urrun




9 | prezioak apur bat igo egingo direla aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiak zertxobait ezkorragoak dira prezioen igoerarekin¹ (-7) lotutako igurikimenetan aurreko hiruhilekoekin alderatuta (-7 eta -4). Hala, urteko behin-behineko balioa (-6, hiru hiruhilekoen batez bestekoa) aurreko balioetatik oso aldentuta dago (-20, -22, -41 eta -48, 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetan). Hortaz, familien iritziz, inflazio handiko joera horrek goia jo du. Hain zuzen ere, eta modu egonkorrean, familien heren batek uste du 2023ko hiru hiruhilekoetan prezioen gorakada berbera edo txikiagoa gertatuko dela.

Igurikimen horiek bat datoz EAEko (+% 2,7 eta +% 6,3) eta Estatuko (+% 2,6 eta +% 6,1) prezioen hazkunde motelagoarekin (KPI orokorra eta azpikoa², urte arteko tasan, abuztuan). Horri guztiari esker, 2024rako % 2ko igurikimena (KPI orokorra) sinesgarria izan liteke. Baina Europako beste herrialde batzuek izandako emaitza okerragoa (Alemaniak eta Frantziak +% 6,4ko eta +% 5,7ko urte arteko igoerak izan dituzte abuztuko KPI orokorrean) prezioen joera hori “hozteko” helburuarekin erreferentziatzeko interes-tasen gorakada (% 4,50) eragiten ari da.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

10 | erosteko unearen balorazio negatiboak bere horretan jarraitzen du


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Inflazio-joeraren metatutako eraginak (2021eko udazkenetik) familiako ekonomiaren egoera eta igurikimenak okertuko zituen (-16, maila baxuenetako batean). Testuinguru horretan, erosteko unearen inguruko balorazioa oraindik ere negatiboa da (-29, -4 puntu) eta ez du suspertze-zantzurik erakusten.

Erosteko unearen balorazioari dagokionez, jarrera neutrala adierazi duten familien taldeak ez du aldaketarik izan (% 58,4; +0,1 puntu); aldiz, handitu egin da unea txarra dela uste dutenen proportzioa (% 35,1, +1,7 puntu) eta gutxitu unea ona dela uste dutenen taldea (% 6,4; -1,8 puntu).

Erosteko unearen balorazioarekiko neutraltasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, unea txarraren balorazioa erosketaren horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago. Hala, familien heren batek uste du unea txarra dela (zifra hori azken urtean ez dutela aurreztu erantzun dutenentzako antzekoa da).

Erosteko unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetako datuetatik


11 eta erosketa handiak egiteko igurikimenak suspertu, eta ia positiboak dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien artean, erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizeak zertxobait egin du behera (-8), baina oraindik ere aurreko hiruhilekoen balio antzekoetan dago (-7 eta -5, lehen eta bigarren hiruhilekoetan). Erosketa horiek zerbait edo askoz txikiagoak izango direla uste duten familien taldeak izandako gorakadak (% 29,6, +1,7 puntu) eta zerbait edo askoz handiagoak izango direla uste dutenen taldean gertatutako jaitsierak (% 16,9; -2,8 puntu) eragin dute emaitza hori.

Urteko indizearen behin-behineko emaitzari erreparatuta (-7, hiru hiruhilekoen batezbestekoa), hobekuntza nabari da 2022. urtearekin alderatuta (-11), baina oraindik ere ez da itzuli 2019ko edo 2021eko mailetara (0 eta -2, pandemia edo inflazio aurretik). Orotara, aipatu beharrekoa da 2022. urtera arte, erosketa handi horiei lotutako gastuaren dinamismoa (+% 2,6) familien guztizko gastuak izandako susperraldia baino txikiagoa izan dela (+ % 8,1, Familiako Gastuaren Estatistika, Eustat).


———— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹ ————




¹ Azken 12 hilabeteetako dagokienez.

12 | etxebizitza erosteko asmoa hoztu egin da; aldiz, autoa erostekoa, mantendu

Familien % 1ek baino gutxiagok adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan etxebizitza (ia ziur) erosiko duela, aurreko hiruhilekoen antzeko mailan. Hala, urtarriletik uztaile bitartean, salerosketako¹ 13.258 eragiketa burutu dira eta datu hori 2016tik izandako bigarren zifra onena litzateke, baina 2022koaren azpitik (-% 8,7) dago. Hipoteka-kostuaren igoerak joera hoztu duela dirudi, baina 2019koen antzekoak liratekeen balio normalizatuagoetara itzuli direla erakusten du.



Hurrengo hamabi hilabeteotan ibilgailua erosteko asmoa izango luketen familien taldea oraindik ere % 4 ingurukoa da, nahiz eta jaitsiera txikia izan duen. Ibilgailu berrien matrikulazio-zifrek² gora egin dute urte arteko tasari dagokionez (% +11,3, urtarrila-abuztua), baina bolumena (15.634 unitate) oraindik ere 2018. urtearen aurreko balioetatik oso aldenduta (25.000 unitateren gainera) dago.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | kontsumo handiarekin lotutako igurikimenak, hobetzetik urrun

EAEko familien inbertsioarekin eta kontsumo handiarekin lotutako igurikimenen hiru indizeak nolabaiteko atzerakada izan dute urteko hirugarren hiruhilekoan. Horrekin lotuta...

- Prezioen bilakaeraren inguruan EAEko familiek adierazitako igurikimenak oraindik ere balio negatibotan (-7) jarraitzen dute, baina prezioen igoerak goia jo duela baieztatu dute, inflazioaren beheranzko joerarekin lerrotatuz (KPI orokorra EAEn, abuztuan, +% 2,7).
- Erosketa handiak egiteko unearen balorazioak oraindik ere oso balio negatiboetan (-29) dirau eta hiru indizeetan okerreana da. Horrek agerian utzi du prezioen gorakadak izandako eragin handia, 2021etik okerrera egin baitu argi eta garbi.
- Erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimenek ez dute aldaketa handirik izan (-8) eta urte osoko antzeko balioetan jarraitu dute. Datu horretan oinarrituta, joera nahiko laua izango dela iragar daiteke (gaur egungoen antzeko bolumenetan).
- Badirudi etxebizitza erosteko asmoa hoztu egin dela (dena den, urtarrila-abuztua balantzea oraindik ere positiboa da), aldiz, autoa erostekoa, mantendu (baina 2019 aurreko mailetatik urrun).

Gauzak horrela, EAEko familiek kontsumo handiarekin eta inbertsioarekin lotuta dituzten igurikimenak ziurgabetasun-egoerara egokitu dira, gastuetan lehentasuna eta zuhurtzia nagusituz. Laugarren hiruhilekoko emaitza (eta urtearen amaierakoa) finantzaketa-kostuaren¹ eraginaren mende egongo da, eragiketa mota horiek motel baititzake.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	IV H-22	I H-23	II H-23	III H-23	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-51	-7	-4	-7	-3	▼
Erosteko unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-40	-32	-25	-29	-4	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-18	-7	-5	-8	-3	▼

↔ (±2 puntuko aldea)

1. Gehienetan, familia "gazteenei" lotuta, metatutako aurrezki gutxiago eta finantzaketa-baldintzekiko mendekotasun handiagoa baitute.

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	IV H-22	I H-23	II H-23	III H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-23	-9	-7	-13	▼
• Estatua*	-6	-23	-13	-26	-28	-23	-19	-13	▲
• EB*	-6	-15	-8	-23	-26	-21	-18	-17	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-20	-21	-17	-15	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-25	-17	-13	-14	▶
○ Danimarka*	4	1	5	-14	-19	-12	-7	-5	▶
○ Herbehereak*	-7	-13	-4	-25	-29	-20	-19	-18	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE									
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-39	-19	-16	-25	▼
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-21	-10	-11	-16	▼
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-14	-6	0	-6	▼
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-17	-2	1	-4	▼
Beste indize batzuk. EAE									
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-51	-7	-4	-7	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-40	-32	-25	-29	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-18	-7	-5	-8	▼
Erosketa handiak. EAE.**									
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	0,8	0,8	1,1	0,9	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	2,5	4,5	4,8	3,9	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III. hiruhileko datuak uztaila-abuztua batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	IV H-22	I H-23	II H-23	III H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-23	-9	-7	-13	▼
Adin-taldeak									
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-17	-11	-11	-11	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-27	-9	-7	-14	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-23	-7	2	-10	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-23	-10	-8	-15	▼
Lan egoera									
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-22	-9	-5	-11	▼
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-31	-23	-20	-25	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-22	-7	-5	-13	▼
Familia-unitatearen hileko errenta									
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-33	-19	-22	-27	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-21	-5	-5	-11	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-15	-2	4	-3	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	III H – 22	IV H – 22	I H – 23	II H – 23	III H – 23 _b	(azkena)
BPG	4,8	3,4	2,3	1,5	--	II hiruhilekoa
Familien kontsumoa	8,0	5,1	1,7	1,3	--	II hiruhilekoa
Afiliazioa	-1,0	1,7	-0,3	1,2	-0,8	uztaila-abuztua
Erregistratutako langabezia	-1,1	-1,0	0,3	-4,1	0,5	uztaila-abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,2	1,7	3,1	1,4	--	II hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-2,3	-16,9	25,2	-19,5	--	II hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-18,8	22,8	-3,0	9,6	-30,7	uztaila-abuztua

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie
- 2023ko abuztuaren 28tik irailaren 8ra (2023ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm